


Behatuz ezagutu

Kontsumoa



Behatuz ezagutu



Nola duzu izena?

Zenbat urte dituzu?

Nongoa zara?



Naturan hezten

Sortzailea



Landarlan
ingurumen elkartea

Laguntzailea



Babeslea



kutxa
FUNDAZIOA

GALDETEGIA



Atera kalera eta pasa ondorengo galdetegia 10 herritarrei (hala badagokio, erantzun bat baino gehiago aukeratu daiteke):

1. Astean zenbatetan egiten dituzu erosketak?

- Behin Bitan Egunean eguneko

2. Non egiten dituzu erosketak?

- Auzoko dendan Supermerkatuan Internetez Beste bat: _____

3. Kutxara heltzean, behar ez zenituen produktuak dituzu?

- Bai Ez Agian/batzuetan

4. Garrantzitsua da erosten duzun produktuaren marka?

- Bai Ez Agian/batzuetan

5. Erosterako garaian publizitateak baldintzatzen zaitu?

- Bai Ez Agian/batzuetan

6. Produktu bat aukeratzeko momentuan, ze irizpide jarraitzen duzu?

- Prezioa Marka Ekoizpen-lekua Ekologikoa izatea

7. Erosi behar duzun produktuaren jatorriari begiratzen diozu?

- Bai Ez Agian/batzuetan

8. Produktu bat iraunkorra den desberdintzeko gai zara?

- Bai Ez Agian/batzuetan


9. Inguruan bidezkoak edota jasangarriak diren produktuak saltzen dituzten dendarik ezagutzen duzu?

- Bai Ez Agian/batzuetan



Zein izan da galdetegiko galdera bakoitzaren kasuan gehien jasotako erantzuna? Informazio esanguratsuen bildu laburpen gisa:

- 1 _____
- 2 _____
- 3 _____
- 4 _____
- 5 _____
- 6 _____
- 7 _____
- 8 _____
- 9 _____



Inkestako ondorioen inguruan hausnartuz erantzun:


- Nola eragiten dugu herrian, supermerkatu goazen bakoitzean ala internetez erosten dugunean?

- Zergatik erosten dugu zerrendatik kanpo, behar ez dugun produkturik?

- Nola eragiten du publizitateak gure kontsumoan?

- Kanpoko produktuak erosteak zer nolako eragina du ingurumenean eta gizartean?

- Jasangarritasun irizpideekin kontsumitzen al dugu?



Egunean zehar izaten dituzun behar eta erabiltzen dituzun baliabideak ugariak dira. Ea hauen 30 adibide izendatzeko gai zaren.

Komuna, aurpegia garbitzeko ura, 
amaren besarkada (familia),... JARRAITU ZUK.



Demagun krisi garai batean sartu eta aurreko zerrendatik 7 bakarrik aukeratu behar dituzula. Zehaztu zein lehenetsiko zenituen eta hausnartu taldeka zergatien inguruan:

- Zerrendatik, zein ziren nahiak eta zein beharrak? Zein da nahi eta beharren arteko desberdintasuna?

- Nahiak eta beharrak, pertsona batetik bestera aldatzen dira? Eta gizarte batetik bestera? Zergatik?

- Beharren ala nahien arabera kontsumitzen dugu?

- Denok berdin kontsumitzen al dugu?

Gure kontsumoaren eraginak hobeto aztertzeko...

... azter dezagun soinean daramagun arropa

Begiratu etiketak eta erantzun galderei zikloko pauso bakoitzean:

① EHVNEN EKOIZPENA


Ze ehun motarekin egin da?
Badakizu nola ekoitzi den? Ala ehun birziklatuak dira?

② ARROPAREN EKOIZPENA

Badakizu non diseinatu den?
Eta non eta nork josi duen?

⑤ ZIKLO AMAIERA

Zer egingo duzu hausten zaizunean? Badakizu aukera desberdinak dituzula? Zein?



④ ERABILERA

Zenbat erabiltzen duzu? Eta zenbatero garbitzen? Erabilera bakarrero ala zikindutakoan?

③ GARRAIO ETA SALMENTA


Non erosi duzu? (denda txikian, merkatal gune handian, internetez,...)
Zenbat km egin ditu?

Aurreko erantzunetan arreta jarri eta ondorioztatu zure arropa kontsumoaren eraginak:

Ingurumenean:



Ekonomian:




Gizartean:



Arropen etiketari begira jarraituz...

Markatu mapan zure gelakideen arropa nondik datorren. Non pilatu dira puntu gehien? Zergatik uste duzu?



Ba al zenekien?

BIDEZKO MERKATARITZA sistema justu eta desberdina da eta herrien garapena eta pobreziaren kontrako borroka ditu helburu gisa.

Hauetan oinarritzen da:

- Lan eta soldata baldintza egokiak langileentzat, duintasunez bizitzeko aukera izan dezaten.
- Haur esplotaziorik ez egotea.
- Berdintasuna gizonen eta emakumeen artean: Biek, gizon zein emakumeek, tratu eta ordainsari bera jasoko dute.
- Ingurumena errespetatzea. Gaiak hauek sortzen diren ingurumenarekiko errespetua erakusten duten prozeduren bidez ekoiztuko dira.



Zer nola desberdintzen dira bidezko merkataritza eta nazioarteko merkataritza arrunta?

osatu ezaugarriak ondoko taulan:

BIDEZKO MERKATARITZA	NAZIOARTEKO MERKATARITZA

Bidezko merkataritza ondoko zigiluekin bereizten da:





Izendatu birziklatu daitezken 3 gauza:

Izendatu berrerabili daitezken 3 gauza:

Zer da birziklatzea?

Zer da berrerabiltzea?

Zein aukera lehenetsi behar da?

Seguru "ekonomia zirkularra"-ren kontzeptua ezaguna zaizula. Zer den azaldu dezakezu? Behar izanez gero definizioa bilatu.

Zerrendatu baliabide amaitezinak:

Zerrendatu baliabide mugatuak:

Zein da lehenetsi beharreko aukera?
ordenatu, lehenetsi beharreko aukerak
piramidearen oinean kokatuz:

BIRZIKLATU


HONDAKINDEGIRA

MURRIZTU

BERRERABILI

SAIHESTU

+





Kontsumitzaile arduratsuon erronka

• *Nola aurreztu dezaket uraren erabileran? Hartu zure egunerokoan ura aurrezteko 3 erabaki (aukeratu ala proposatu zureak):*

- Txorrotetan ur aurreztaileak jarri
- Bainatu ordez, dutxatu
- Landareak ureztatzeko euri-ura erabili
- Xaboitzen garen bitartean ur txorrota itxi
- Komuneko zisternan ur botilak sartu
- Erabilera bakarreko plastikoak ekidin

• *Nola aurreztu dezaket argindarra? Hartu zure egunerokoan energia aurrezteko 3 konpromezu (aukeratu ala proposatu zureak):*

- Eguneko telebista orduak murriztu
- Gailu elektronikoak deskonektatu erabilera amaitu orduko
- Egun argiz ez piztu argirik
- Pantailak itzali
- Igogailuak ekidin
- Aire libreko aisialdia hautatu

Nola egin dezaket elikadura iraunkorrago baterantz gerturatzeko? Ezarri zeure buruari hamaiketako iraunkorraren erronka: aukeratu astean egun bat, bertako produktu batekin hamaiketako osasuntsu eta iraunkor bat egiteko.



Asteko zein egunetan? _____

Zer jango duzu? _____

Non eta nori erosiko diozu? _____

Gozatu bertako garaiko jaki osasuntsu eta iraunkorrez, eta galdetu ekoizleari nola ekoitzi dituen! Ekologikoa bada, hobeto!



Pentsatu aisialdirako argindarrik, pantailarik eta dirurik beharko ez den 3 plan, eta jarri hitzordua lagunekin!

